



EKONOMIAREN ETA ARAUEN KONTROLARI BURUZKO TXOSTENA, BALIABIDEAK BANATZEKO ETA FORU-ALDUNDIEK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTUAK FINANTZATZEKO EGIN BEHARREKO EKARPENAK ZEHAZTEKO 2022-2026 ALDIAN APLIKATUKO DEN METODOLOGIARI BURUZKO LEGE-AURREPROIEKTUA DELA ETA.

Urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina. Testu horren III. tituluaren IV. kapituluaren kontrol ekonomiko-normatiboa arautzen da: nahitaez egin beharrekoa da, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak dagokion kontrol-txostena emanda gauzatzen da.

Kontuan izanik aipatutako arauan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan eta Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura eta zereginak finkatzen dituen otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoa, txosten hau egin da:

TXOSTENA:

I. XEDEA.

Aipatutako lege-aurreproiektuaren xedea da artikuluko bakar baten bidez onartzea Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2021eko uztailaren 15ean egindako ezohiko bilkuran hartutako erabakia, zeinaren bidez ezartzen den baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldirako metodologia.

Horri dagokionez, funtsezko araua da Euskal Autonomia Erkidegoaren jarduera ekonomikorako, erkidegoaren Aurrekontu Orokorretako diru-sarrera gehienak arautzen baititu.

II. AURREKARIAK ETA IGORRITAKO DOKUMENTAZIOA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 42. artikuluko a) idatz-zatiak xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren diru-sarrerak, besteak beste, foru-aldundiek egindako ekarpenek osatuko dituzte, lurralde historikoek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-gastuetarako emandako laguntza direnak, eta, era berean, xedatzen du Eusko Legebiltzarraren lege batek ezarriko dituela banaketa ekitatiborako irizpideak eta, irizpideon arabera, lurralde historiko bakoitzaren ekarpenak adosteko eta gauzatzeko prozedura.

Ildo beretik, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 16. artikuluko dioenez, lurralde historikoek EAEk bere gain hartu ez dituen



karga orokor guztiei aurre egiten lagunduko dute, eta, horretarako, foru-aldundiek beren ekarpenak egingo dizkiote Euskal Herriko Ogasun Nagusiari, lege horretan xedatutakoaren arabera. Halaber, 20.1 artikulua aurreikusten du Ekonomia Itunaren kudeaketatik eratorritako diru-sarrerak, Estatuari ordaindu beharreko kupoa kendu ondoren, Euskadiko Ogasun Nagusiaren eta lurralde historikoetako foru-ogasunen artean banatuko direla, eta azken horiek Ogasun Nagusiari egin beharreko ekarpenak zehaztuko direla, lege horretan ezarritako arauen arabera.

Horretarako, jarraian, 22. artikulua ezartzen du zein diren foru-aldundiek egin beharreko ekarpenak zehazteko printzipioak. Printzipio horien artean, zortzigarren apartatuan, xedatzen du Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak onartuko duela baliabideak banatzeko eta lurralde historiko bakoitzak Autonomia Erkidegoaren aurrekontu-gastuetarako egin beharreko ekarpenak zehazteko metodologia, gutxienez hiru aurrekontu-ekitalditarako indarraldia izango duena, Kontseiluaren iritziz ekitaldi baterako edo birako indarraldia gomendatzen duten salbuespenezko zirkunstantziak daudenean izan ezik, eta, era berean, xedatzen du Jaurlaritzak Legebiltzarrari igorriko diola, hark onar dezan, aipatutako metodologia jasotzen duen lege-proiektua, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak onartua. Lege-proiektu horrek artikulua bakarreko lege-forma izango du, eta lege beraren 29. artikuluan aurreikusitako araubide berarekin onartuko da; hala, Legebiltzarrak proiektua onartu edo baztertuko du, osoko eztabaida eta bozketan, eta ezin izango da inolako zuzenketarik izapidetu.

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, 2007ko urtarrilaren 18an egindako bileran, baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldirako metodologia onartu zuen, eta, ondoren, Eusko Legebiltzarrak martxoaren 23ko 2/2007 Legea onartu zuen, metodologia hori jasotzen zuena. 2007-2011 bosturtekoa amaituta, martxoaren 23ko 2/2007 Legean jasotako metodologia azken xedapenean aurreikusitako luzapen automatikoko klausulari jarraiki aplikatu da 2012an geroztik. Klausula horrek ezartzen du, salbuespen gisa, metodologiaren indarraldia igarota ez bada aldarrikatzen hurrengo ekitaldietarako baliabideak banatzeko eta ekarpenen zehaztapena arautzeko lege berri bat, orduan lege hori oso-osorik aplikatuko dela 2012an eta hurrengo ekitaldietan.

Testuinguru horretan, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, 2021eko uztailaren 15ean egindako bilkuran, baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldirako metodologia onartu zuen. Horrekin, gainera, amaitutzat emango litzateke orain arte aurreko Ekarpenen Legea aplikatuta indarrean egon den luzapen-aldia.

Ondorioz, aztertzen ari garen lege-aurreproiektua Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 22. artikuluan jasotako agindutik eratortzen da, zeinaren arabera Jaurlaritzak dagokion lege-proiektua aurkeztu behar dion Legebiltzarrari, hark onar dezan, zehaztuz Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak baliabideak banatzeko eta lurralde historiko bakoitzak autonomia-erkidegoko aurrekontu-gastuetarako egin beharreko ekarpenak zehazteko erabakitako metodologia.



- 1.- Herri Dirubideen Euskal Kontseiluko idazkariaren ziurtagiria, 2021eko uztailaren 16koa, organo horrek 2021eko uztailaren 15eko bilkuran hartutako erabakia egiaztatzen duena.
- 2.- Lege-aurreproiektuari buruzko memoria, Erakunde Harremanetarako Zuzendaritzak egin.
- 3.- Lege-aurreproiektuaren testua.
- 4.- Ekonomia eta Ogasun Sailaren Zerbitzu Juridikoaren txostena.
- 5.- Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiaren legezketasunaren barne-kontrolari buruzko txostena.

III. ANALISIA.

Bidalitako agiriak aztertu ondoren, uste dugu bat datozela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomia-kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuko 42. artikuluko aurreikuspenekin, eta agiri horiek informazio nahikoa biltzen dutela bulego honek ekonomia-kontrola egin dezan, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren 25.etik 27.era arteko artikuluetan xedatzen den legez.

Lege-aurreproiektuak artikulua bakarra eta eranskin bat ditu. Eranskin horretan, baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologiari buruz Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak hartutako erabakia jasotzen da.

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren erabakian jasotako metodologiak egitura hau du:

- I. kapitulua, banatu beharreko baliabideak zehazteari buruzkoa.
- II. kapitulua, banaketa bertikaleko ereduari buruzkoa.
- II. kapitulua, banaketa horizontaleko ereduari buruzkoa.
- IV. kapitulua, Egokitzapenerako Funts Orokorrari buruzkoa.
- V. kapitulua, toki-erakundeek Ekonomia Itunetik datozen baliabideetan duten partaidetzari buruzkoa.
- VI. kapitulua, arau operatiboak eta informazio-betebeharrak jasotzen dituena.
- Xedapen gehigarriak.
- Azken xedapena

Oro har, esan daiteke metodologia hori bat datorrela ekarpenak foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean adosteko estatutuak jasotzen duen eskakizunarekin (Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 42.a) artikulua), bai eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundearen



arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legean aurreikusitako prozedurarekin ere (22. artikulua zortzigarren apartatua eta 29. artikulua).

Bestalde, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean ezarritako xedapenetara ere egokitzen da. Lege horren arabera, tokiko ogasunek Kontzertu Ekonomikoaren indarrez lurralde historikoek lortzen dituzten zergen errendimenduan parte hartuko dute, Estatuari ordaindu beharreko kupoa eta Autonomia Erkidegoari egin beharreko ekarpenak deskontatu ondoren, baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko metodologia arautzen duen legean aurreikusitako baldintzetan (117.1 artikulua). Horrez gain, udalek itundutako zergen errendimenduetatik datozen baliabideetan maila egokia eta orekatua lortzen dutela bermatzeko, udalek parte hartuko dute, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan dituzten ordezkarien bidez, baliabideak banatzeko metodologia definitzen duten legeak erreformatzeko lanetan eta lurralde historikoek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko lanetan (117.4 artikulua).

Ildo horretan, lege horren lehenengo xedapen iragankorraren 3. paragrafoak ezartzen zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek finantzaketa egokia dutela bermatzeko xedez, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-maila bakoitzaren eskumen propioen eta finantzaketaren azterketa orokorra egingo zela, Euskal Administrazioan gastu publikoa behar bezala banatzen dela ziurtatzeko, eta, orobat, azterketa horren ondorioak kontuan hartuko zirela baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko metodologia zehazten duen legea berrikustean.

Bide beretik, bigarren xedapen iragankorraren bigarren paragrafoan xedatzen denez, behin azterketa hori bukatutakoan, abian jarriko dira baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko metodologiari buruzko lege berri bat idazteko mekanismoak, arautestu berrian sartu daitezkeen aipatutako azterketaren emaitzetan oinarrituta beharrezkoak diren xedapenak, bai eta banaketa horizontaleko eredu eta lurralde historiko bakoitzaren ekarpenaren koefiziente horizontalak ezartzeko orduan, eta orobat aipatutako baliabideen banaketa horizontalean gerta daitezkeen desorekak zuzentzeko beharrezko mekanismoetan, udalek eduki beharreko partizipazioari buruz Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean jasotzen diren aldaketa guztiak.

Lege-aurreproiektuan jasotzen den metodologiak bere horretan eusten die 1985etik baliabideak banatzeko eta ekarpenak zehazteko aplikatu den sistemaren ildo nagusiei, orduan ezarritako oinarritzko printzipioak gordez.

Baliabideen banaketa bertikalaren ereduari dagokionez, onartutako metodologiak aurreko sistemaren ildo nagusiei eusten dien arren, eguneratu egin dira kupoa zehazteko metodologiaren edo Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak hartutako erabakien aplikaziotik eratorritako alderdiak, baita autonomia-erkidegoen eskumen-eremuetan Estatuak har ditzakeen finantzaketa-konpromisoetatik edo zerbitzuen



eskualdaketa jakin batzuk finantzatzeko araubide espezifikotik eratorritakoak ere. Koefiziente bertikala %70,04tik %70,81era igo da, batez ere Eusko Jaurlaritzak azken urteotan bere gain hartutako eskualdaketa berrien integrazioagatik. Koefiziente horrek, gainera, Gizarte Zerbitzuen Funtzari dagokion zenbatekoa banaketa bertikaleko eredian txertatu dela adierazten du.

Banaketa horizontaleko ereduari dagokionez, bere horretan eutsi zaio ekarpen-koefiziente horizontalak kalkulatzeko metodologiari.

Halaber, foru-aldundi bakoitzaren diru-bilketaren pisu erlatiboa bere koefiziente horizontalaren % 99ra iristen dela ziurtatzeko helburuari eusten zaio. Egokitzapenerako Funtz Orokorren gehieneko muga euskal erakundeen artean banatu beharreko baliabideen % 1,45era arte igotzen da, indarreko metodologiak ezarritako % 1aren aldean. Egokitzapenerako Funtz Orokorren gehieneko zenbatekoa igotze horrek areagotu egiten ditu lurralde historikoentzako bermeak.

Azkenik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean aurreikusitakoaren arabera, toki-erakundeek dagokien lurralde historikoko baliabideetan izango duten partaidetzaren gutxieneko ehunekoa ezartzen da, % 39,23; hala, hiru lurraldeetako toki-erakundeek tributu itunduetan izango duten partaidetzaren ehunekoa egun indarrean dagoena baino handiagoa izango da.

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2021eko uztailaren 15eko bilkuran onartutako metodologiak gaur egun indarrean dagoenaren aldean dituen aldaketek badute azalpen-justifikazio egokia Erakundeen Baliabideen Zuzendaritzak egindako memorian (izapidetzen ari den lege-aurreproiektuari erantsita).

IV. ONDORIOA.

Azaldutakoaren arabera, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak aldez aurreko onarpena eman zionez aztertutako lege-aurreproiektuaren xedeari, 2021eko uztailaren 15ean egindako bileran, eta Gobernu Kontseilurako izapidetaren helburua Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 22. artikuluan xedatutakoa zehatz-mehatz betetzea denez, ez zaio oharririk egiten.

JAVIER LOSA ZIGANDA.

KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOAREN ZUZENDARIA